

UDAL HAUTESKUNDEAK 2011: ALDERDIEN ESKAINTZA

•Iritziz iritzi: Joxe Manuel Bereziartua •Zuek bai jakin!: Josean Iribarren

•Izerdi patsetan: Aritz Egea •Boteprontoan: Miriam Luki

Herri Aldizkaria Otamotz

2011ko

apirila

166. alea



Herri Aldizkaria
Otamotz

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak. Labeaga 12, Urretxu. 943 72 34 08 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Etxeraino **Publizitatea:** Iker - 647 319 775 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea


- 04 **Hilabete honetako gaia**
Udal hauteskundeak 2011: alderdien eskaintza
- 12 **Komikia / Egurra partitzen**
- 13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Aurten Iparragirrereren heriotzaren 130. urteurrena da.
Zer diozu Urretxuko musikariaz?
- 14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 16 **Klik eta klik**
Gotzon Aranburu
- 19 **Gure gomendioa**
- 20 **Zuek bai jakin!**
Josean Iribarren
- 25 **Izerdi patsetan**
Aritz Egea
- 28 **Gure aholkuak**
- 29 **Argazki zaharra**
- 30 **Boteprontoan**
Miriam Luki



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Udal hauteskundeak 2011: alderdien eskaintza

2007-2011 legealdia amaitzera doa. Urretxun Arauen afera izan da berriro ere protagonista nagusia eta Zumarragan, berriz, Antioko interpretazio zentroaren ingurukoa. Maiatzaren 22an udal hauteskundeak izango dira. Alderdiei datozen lau urteetarako duten eskaintzaren berri emateko eskatu diegu.



PSE-EE: “Inor ez da eskualde honetaz gogoratu, baina zorionez Beasain-Durangok eta AHTk aukera bikainak eskainiko dizkigute”

Zumarraga bidegurutze izatea nahi dugu, ez fisikoki bakarrik: kultura eta ideia ezberdinen topaleku izatea nahi dugu, guztiok parte hartzeko aukera izatea. Hori funtsezkoa da. Hori lortzen badugu, demokrazian sakondu dugun seinale izango da.

Bestalde, erronka ekonomiko handia dugu. Kontua ez da egitasmo berriez hitz egitea, orain arte krisiari aurre egiteko egin dugun lana oinarritzat hartzea baizik. Eskualde mailan plan estrategikoa egin zen eta hori garatu behar da. Batzuek hausnarketa egiteko garaia dela diote, baina hausnarketa eginda dago eta alderdi guztiak ados agertu ginen.

Azken 30 urteotan inor ez da eskualde honetaz gogoratu, baina zorionez Beasain-Durangok eta AHTk aukera bikainak eskainiko dizkigute. Dena den, azpiegitura hauek aspaldi egon behar ziren eginda.

Hirigintzari dagokionez, Zumarragan aldaketa handia eman da. Azken urteotan jasotako diru-laguntzei esker herri atsegina dugu. Orain herriaren zaharberritzearekin jarraitzea dagokigu. Bestalde, base-rirentzako azpiegituretan ere inbertsio handia egin da: bideak konpondu dira, argiteria berritu da... Bide horretatik jarraituko dugu. Gure helburua baserriak eta herria hurbiltzea da.

Baina garrantzitsuena gutxien dutenei laguntzea da. Udalera jende asko etortzen da laguntza eske eta ahalegin handia egin beharra dugu.



Horretaz gain, maiatzean bertan interpretazio zentroa eraikitzen hasiko dira. Denon artean horri etekinik handiena ateratzen saiatu beharra dugu.

Urretxuri dagokionez, duela gutxi EAJ eta Hamaikabat alderdiekin akordio batera iritsi ginen. Helburua herriaren garapena bideratuko duten Arauak lortzea da. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak dagoeneko ondo zehaztu dute zenbat etxebizitza eraiki daitezkeen eta non. Horrek inbertsoreei ere lana errazten die.

Azken bi legealdietan alkateek nola edo

hala atera dituzte aurrera Arauak, nahikoa babes jaso gabe, eta hori ez da gomendagarria. Hauteskundeak irabazten saiatuko gara eta ondoren akordio batera heltzen. Egungo gobernu taldeak egindako lana aprobetxatuko dugu, baina gauza asko aldatu beharko dira. Urretxuk lehenbailehen Arauak behar ditu garatu ahal izateko eta alkate berriak alderdi guztiak kontuan izan beharko ditu. Orain arteko jarrerarekin ez gara inora helduko. Legealdi honetan gure bozeramaleari ez zaio kasurik egin eta hori ez da bidezkoa.

Bildu: “Zumarragak eta Urretxuk euskaldunak, solidarioak, sostengarriak eta parekidetasunean oinarrituak izan behar dute”

BILDUren ustez etorkizunean nahi ditugun Zumarraga eta Urretxuk euskaldunak eta solidarioak izan behar dute, ingurumenarekiko sostengarriak eta gizon eta emakumeen arteko benetako parekidetasunean oinarriturikoak.

1. HERRI EREDU PARTE HARTZAILE ETA BIZIA NAHI DUGU; DEMOKRATIA PARTE HARTZAILEA BERMATU-KO DUENA. Erabakiguneetatik aldendu gaituen sistema honetan herritarrek erabakia hartzeko bitartekoak berreskuratu behar ditugu.

2. UDALEN KUDEAKETA-EREDU IREKI ETA GARDENA BULTZATUKO DUENA. 60 lan ildo osatutako bi herrien arteko elkarlan egitasmoari ekingo diogu berriz.

3. ZUMARRAGA ETA URRETXUTIK EUSKAL HERRIAREN ERRO ETA NORTASUNA INDARTU NAHI DUGU.

-Euskara: Udaletako sail guztientzat euskara plana ezarri, sakondu eta sendotuko dugu. Nerabe eta gazteekin lan egiten duten aisia, kirol eta kultur taldeetan euskararen erabilera sustatuz.

-Hezkuntza: Euskara oinarri, Euskal Herri librean emakume eta gizon libreak hezteko bitartekoa izan eta herriko hornidura hobetuko dugu.

-Kultura: Herritar orok bere herriaren historia, ohitura eta kultura ezagutu eta sakontzeko bitartekoak eta hornidura bermatuko dugu.

-Lan eta bizi baldintza duinak euskal herritarrentzat: Elkartasun printzipioa

oinarri, herritar ororen eta bereziki gazteen, emakumeen eta etorkinen eskubi-deak, babes sozial publiko, unibertsal eta parte hartzailearen bitartez bermatuko ditugu.

-Etxebizitza: Jabego pribatuaren eta merkatuaren logikatik kanpora atera nahi dugu. Espekulazioari bideak itxiz, alokairuzko etxebizitzei lehentasuna eman eta hauentzat lur erreserba bermatu alokairuzko etxebizitza parke publikoa sustatuz eta zaharrak birgaituz.

-Zerbitzu publikoak eta sozialak: Gutxieneko sarrera ekonomikora iristen ez direnei edota menpekotasunen bat duten herritarrei oinarritzko zerbitzu guztiak bermatuko dizkien politikak aurrera eramango ditugu.

-Emakumearen menpekotasun estrukturala gainditu: Emakumeen parte hartzea ahalbideratu eta sustatuko duten neurri zehatzak aurreikusiko ditugu.

-Udal inklusiboak eta migrazio politika: Etorkinekiko izan ditzakegun pentsamolde arrazisten aurrean bere eskubide eta arduren jabe direla aitortzeko ekimenak burutuko ditugu.

-Ekonomia eta ekoizpen bitartekoak, Euskal Herriaren eta euskal herritarren zerbitzura: Pribatizazioei kontra egin, lehen eta bigarren sektoreak defendatu... Mankomunitate ikuspegitik lan egingo dugu eskualde osoa aktibatu dadin. Zerga politika birbanatzaileak garatuko dugu, gehien dutenek gehiago

eman dezaten eta gutxien dutenek bizi baldintza duinak izan ditzaten.

-Lurralde antolaketa sostengarria eta ekologia: Konfliktua sor daitekeen proiektuetan, eztabaida sozial zabalari bide eman. Zaborra zero” helburu izanik, martxan dauden zabor biltzaile sistemak segimendua egin Sasietarekin batera eta emaitza hoberenak ematen dituen lehenetsi. Eraikia dagoenari ahalik eta etekinik handiena atera berria eraiki aurretik. Goi auzoetako irisgarritasun azterketa egin eta ekintza plana zehaztu. Oinezkoei lehentasuna ematen dien plana garatzen bukatu. Eremita guztietan ezindu fisikoentzat irisgarritasuna egokitu. Isurketa kutsatzaileen salaketa eta zainketa sistematikoa egitea. Santa Barbara eta Antioko parkeetako planak garatu.

-Gazteria: Gazteek erabakitzeke eta antolatzeke guneak bultzatu eta errespetatuko ditugu.

-Kirolak: Kirola, lehiaketa mundutik haratago, herritarrentzat osasuna, aisialdia eta harreman sozialak indartzeko bitarteko moduan landu.

-Udaletik, bizi-eredu eta harreman-molde askatzaileak sakondu eta praktikan jarri.

Hauek dira BILDUK Zumarraga eta Urretxun datorren legealdian gure udaletan gauzatuko dituen ardatz nagusiak. Bildu Zumarraga eta Urretxu. Bildu Euskal Herria. Bildu ezkerretik abertzailegoa!

EAJ: “Hainbat guneren berriztapena martxan jarri behar da: Aparicio eta Kalebarrenekoa adibidez”

Garapen ekonomikoa

-Industria gure ongizatearen ardatz nagusia izanik, garapen industrialari lehentasuna eman behar diogu.

-Ezkio, Urretxu, Legazpi eta Zumarragarentzat bailara mailako proiektu estrategiko adostu bat behar dugu, konpromiso irmoa eta beharrezko baliabideak jarriz paperetik errealitatera gauzatu behar dena.

-Bailaran egindako hausnarketa Goierriko bailarekin partekatu eta gerturatze prozesu bat eman behar da.

-Enpresa traktoreen eta txikien artean foroak erabiliz, estrategia berriak sortuko dituzten hausnarketa prozesuak bultzatu behar dira.

-Jada gure aurrean dauzkagun aukerak era ausart batean bultzatu behar ditugu, sektore sozio-sanitarioa, produktu berriak sortzeko ingeniariak zerbitzuak,...

-Merkataritza sektore ekonomiko garrantzitsua izateaz gain, gure kaleei bizitasuna ematen die. Bitartean-ekin lankidetzan herriko merkataritza sareak dinamizatzen jarraitu behar dugu.

-Ekintzaileei laguntzetik, jarrera proaktiboko batekin, ekintzaileak sortzera pasatu behar dugu.

-Ezagutzaren garaia deitzen den honetan era guztietako formakuntzak berebiziko garrantzia izan behar du eta hau izan behar da etorkizunera begira gure lehen inbertsioa.

Ingurugiroa

-Arazo bat daukagula onartu eta garden-

tasunean oinarritutako plan bat martxan jarri behar dugu. Inguruko bailarek arazoa konpontzea lortu badute gu ere gai izango gara.

-Plan hau aurrera eraman ahal izateko jakintza-alor anitzeko taldea proposatzen dugu. Udaletako, Jaurlaritzako, Aldundiko, Osakidetzako eta Unibertsitateko ordezkariak egongo lirake.

-Martxan jar daitezkeen neurri zehatzak: inbertsioak behar dituzten enpresei laguntzak lortzen lagundu, PM-10-aren analisi kimikoa egin, garbitasun hezea indartu, bidegorri sare zabalago baten bidez oinezkoen mugikortasuna sustatu.

Ongizatea

-Dependentzia egoeran dauden pertsonen, eta beraien familiei zerbitzu egokiak eta pertsonalizatuak eskaintzeko baliabideak indartu.

-Dinamika desberdinen bitartez helduen esperientzia herriaren zerbitzura jarri.

-Apartamendu babestuak eraiki.

-Egoera zailtan daudenei dagozkien laguntzak eta hauekin batera doazen bete beharren betetzea bermatu behar dugu.

-Enpleguaren bidez gizarte txertaketa bideratu.

-Etorkinen integrazioa ahalbideratu.

-Nerabeentzako sortutako Gaztebidetan egitasmoarekin sendo jarraitu.

-Gazteei musika eta bestelako ekintzekin gure kaleak erakargarriak egin.

-Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunean jarrera aktiboa hartu behar dugu, genero-indarkeriaren aurka

irmoki azalduz.

Nekazaritza

-Enpresekin bezala, gure baserrietan ekoizten diren produktuen sustatzea eta bertan ematen den iharduera areagotzeko lan egin behar dugu.

Hirigintza

-Etxe babestuen politika bultzatu nahi dugu, alokairu erregimenean esfortzu berezia eginaz, baina etxe hauek, gizarte bateratua nahi badugu, libreki saltzen direnekin integratuak egon behar dute eta ez gune batzuetan kontzentratuak.

-Hainbat guneren berriztapenak martxan jarri behar dira, Aparicio eta Kalebarren guneei adibidez irtenbidea emanaz.

-Auzoz auzoko planifikazio orekatua eta bizilagunekin partekatua.

-Jasangarritasuna, eraginkortasuna, irisgarritasuna eta mugikortasunak proiektu guztien oinarrian izan behar dute.

Kirola, Kultura eta Euskara

-Kultur talde sendoak dauzkagu eta hauekin beharrezko baliabideak jarriz sorkuntza propioa eta aniztasuna sustatu nahi ditugu, beste kulturei ateak irekiz, baina euskara eta euskal kultura ardatz izanik.

-Kirola egitearen abantaila eta baloreak gizarteratu behar ditugu.

-Kirol instalakuntzak hobetu eta era eraginkor batean kudeatu.

-Kiroldegietarako txartel bakarra sortu.

Kudeaketa arduratsua

-Udalaren eguneroko kudeaketa irizpideak, eraginkortasuna, gardentasuna eta partehartzea izan behar dira oinarri.

Hamaikabat: “500 etxebizitza inguruko hiri plangintza proposatzen dugu, gehienak babes ofizialekoak edo tasatuak”

Urretxu berpizteko

Legealdi honetako balorazioa 2007ko irailean egin zuten orduko gure taldeko bozeramaileek: akats historikotzat jo baitzuten orduan Urretxuren garapena oztopatzea. Eta denborak erakutsi du horrela izan dela, abian ziren hainbat proiektu betirako itzali direlarik. Ordutik hona berri gutxi, baina kezagarriak: Udalak zorpetzeko hartu duen joera geldiezina eta eskualdeko nahiz Urretxuko langabezi tasen igoera.

Horren aurrean, ANVk gidaturiko udal gobernuak denbora eta dirua xahutu baino ez ditu egin. Hainbat zinegotzik amua irentsi ostean Iñaki Zabala jirabiraka ibili da agindu zuena ez betetzeko. Ondorioz, oraindik ez dakigu nola geldituko den herriko hiri plangintza. Hori marka hori!

Normalizazio politikoa

Azken hauteskundeak ezohiko kutsua izan dute hainbat arazo direla medio. Normalizazio politikoa lortzeko urratsak eman arren, guk gehiago exijitzen diogu ETari: euskal gizartearen tutoretza papera baztertzea eta inolako baldintzarik gabe armak betirako uztea. Era berean, pozez hartuko genituzke Sorturen legalizazioak eta Bilduren zerrendak gauzatzeak.

Udal politikan eskarmentua duen jendea osatu arren, alderdi berria da Hamaikabat. Denborak arrazoa eman digu arlo honetan ere bai. Hau da, EA ezker abertzalearen besoetaratu dela, alegia. Guk errespetuz hartzen dugu aukera hori baina ez dugu EAren ibilbidearekin koherentziarik



ikusten, Urretxu eta Zumarraga bezalako herrietan sinestea ere!

EAren estrategiarekin bat egiten ez genuelako eta, gainera, abertzaletasun historikoa eta erakunde zalea indartzeko Hamaikabat. Zoritxarrez ez da gauzatu guk nahi genuen akordioa esparru hori sendotze aldera. Iñigo Peñagarikano saiatu zen alderdiak mugak erakutsi zizkion arte. Saiakera horregatik zorte on opa dizugu, Iñigo.

Urretxu, jokoan

Hauteskunde hauek garrantzitsuak izango dira normalizazio politikoa gertuago ikusteko. Hori ez dugu ukatzen. Halere, maiatzaren 22an Urretxuk jokoan ditu makina bat arazo: etxebizitza, azpiegiturak, enplegua, zorrak kitatu... Hazkunde orekatu batean oinarrituta 500 etxebizitza inguruko hiri plangintza proposatzen dugu —gehienak babes ofizialekoak edo tasatuak—. Zentzu honetan ez dugu egokia ikusten Lizeon eta Irimon etxebizitzak eraikitzea eta ezinbestekotzat jotzen dugu

udal jarduera enpleguaren sorrerarako bideratzea.

Nola egin? Urretxu berpizteko Hamaikabaten asmoa da urtea bukatu aurretik, Urretxuk Arau Subsidiario berriak izatea, Urretxuk ezin dituelako beste lau urte pikutara bidali. Ezagutu dugu zer den ezker abertzalea agintzen gure herrian. Gure iritzi apalean Urretxuri eta eskualdeari hobeto joan zaio abertzaletasun historikoaren gidaritzapean. Orain, zurea da hitza.

Bukatze aldera, Pello Gonzalez da Hamaikabateko diputatu nagusirako hautagai. Pello izan da Urretxu guztiz aldatu zuen gizona. Pellok Ogasun departamentuan egindako lana txalogarria izateaz gain, arnas berria eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Hamaikabaten beharra islatu du Pellok bere zereginetan: zintzoa, zorrotza, langilea, gizon prestua. Ziur gaude herritarren babesa eskuratuko duela erronka berri honetan.

EB: “Eskailera mekanikoak jarriko ditugu, San Gregoriora eta goiko aldeko auzoetara igotzeko”

Ezker Batuak Zumarraga eta Urretxuko herriei begira aurrerapauso batzuk proposatu nahi ditu. Herriak maiatzaren 22ko hauteskundeetan Ezker Batua alderdiaren alde egingo balu hauek izango lirateke gure programaren puntu nagusiak:

-Urolako antzinako geltokiko eraikina zaharberrituko dugu, erabilera soziala emateko.

-Eskailera mekanikoak jarriko ditugu, San Gregoriora eta goiko aldeko auzoetara igotzeko.

-Pribatizatu beharrean udal-zerbitzuen kudeaketa publiko eraginkorra sustatuko dugu, eta enpresei eta, batez ere, ETE-ei lagunduko diegu, beti ere lanpostu egonkorrak sortzen badituzte.

-Zerga-pizgarrien plana prestatuko dugu etxebizitza hutsak merkaturatzeko.

-Erreferenduma eta herri-ekimena ezarriko ditugu, herritarrek zuzenean parte har dezaten.

-Udalerriko adinekoek errealitate ekonomikoaren araberako prezioak dituzten egoitzen zein eguneko zentroen premia dagoela defendatuko dugu.

-Gurasoen lan-premien ordutegiari egokitutako leku gehiago sortuko ditugu haurtzaindegian.

-Errausketa gaitzetsiko dugu eta hondakin organikoen atez ateko bilketa bultzatuko dugu.

-Udal-gastua eta, batez ere, gastu arrunta (zereginen bikoizketa, soldata-osagarriak, liberatuak...) murrizteko plana egingo dugu.



Aralar: “Alokairuko etxebizitza sozialak modu masiboan proposatzen (%80) nahi ditugu jarri merkatuan”

GURE BALORE ETA PRINTZIPIOAK:

- Ezker eraldatzaile, eraginkor eta azkarra.
- Edukietan oinarritutako elkarlana.
- Aniztasuna oinarri eta helburu.
- Tinkotasuna eta malgutasuna.
- Euskaraz bizi eta lan egingo dugu.

ERRONKAK ETA LAN-ILDO NAGU-SIAK:

Pertsonen zerbitzura egongo den hiri-gintza eta alokairuan oinarritutako etxebizitza-politika ausarta gauzatu.

- Pertsona ardatza izatea herrion diseinuan eta herri integratzaileak izatea.
- Etxebizitza bat izateko oinarrizko eskubi-dearekin espekulaziorik ez. Alokairuan eta kudeaketa publikoan oinarritutako etxebizitza-politika: alokairuko etxebizitza sozialak merkatuan jarri modu masiboan (%80). Gazteen emantzipazioa erraztuz, alokairuan bizitzeko eskubidea bermatuz eta ez erabiliz diru-publikoa patrimonio pribatua egiteko.
- Oinezkoak, ibilgailu ez-kutsakorrak eta garraio publiko lehiakorra oinarri izango dituen mugikortasun-eredua.
- Gizarte-zerbitzuen kudeaketa publikoa berreskuratu zerbitzuen kalitatea handituz eta bazterketa sozial oro desageraraziz.**
- “Gizarte-eskubideen karta” sortu eta gizarte-zerbitzuen kudeaketa publikoa lehenetsi.
- Hiri onuragarriak: osasuna, oinarrizko eskubide gisa.
- Pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako borroka.
- Erretirodunak eta pentsiodunen parte

hartze aktiboa bultzatu.

- Ahalmen urritasunak dituzten pertsonak komunitatean integratu eta autonomia sustatu.
- Genero-berdintasuna eta sexu-joeren aniztasuna defendatu.
- Immigrazioa aukera bat da eta ez arazoa.

Kalitateko enpleguak sortu tokiko ekonomia berritzailea, ekologikoa eta solidarioa sustatuz.

- Kalitateko enplegua sortuko duen plana eta langileon defentsa aktiboa.
- Gizarte-ekonomia berritzailea eta balio-erantsi handikoa sustatu.
- Lan-eremuan aukera berdintasunaren alde eta bazterketaren aurka lan egin.
- Bertako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa bultzatu.
- Kontsumo arduratsua sustatu eta bertako merkataritza babestu.
- Bidezko-merkataritza eta elkartasun nahiz lankidetzaren proiektuetan sakondu.
- Ingurumenaren errespetuan oinarritutako garapen eredu berrira abiatu.**
- Jasangarritasuna-irizpideak sail eta jarduera guztietan ezarri.
- Energia aurreztu eta kontsumoa baretzeko neurriak hartu.
- Erregai fosilen gutxitzea energia berriztagarriekin ordeztuz.
- Uraren kultura berria eta kontsumoaren murrizketa.
- Hondakinen kudeaketa integrala eta zero zabor filosofia bilduz: hondakinen gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklapena; atez ateko bilketa abian jarri.
- Kutsadurari (airea, Urola ibaia, zarata...)

irtenbidea eman: adituekin diagnostiko zorrotza egin eta ekintza-plana abian jarri.

- Lorategi, parke eta gunee berdeak areagotzea.

Herritar eleanitzez osatutako herri euskaldun, osasuntsu eta sortzailea bultzatu.

- Euskara zerbitzua indartu eta euskararen erabilera ardatz izango duen hizkuntza-politika salto kualitatiboa ematea.
- Euskara ardatz izango duen kulturgintza sortzaile eta parte-hartzailea bultzatu.
- Kirol praktika askotarikoa eta osasungarria bultzatu: ekipamenduak behar horietara egokitu eta elkartegintza lagundu.
- Gazteriaren autoeraketan lagundu eta baliabideak eskaini.
- Irakaskuntza publikoa defendatu herri-ekimenezik sortutako bestelako hezkuntza-eskaintzak aintzat hartu.
- Bakegintza gure herrietara eraman nahi dugu, ekarpen handia egin dezakegula uste dugu eta Gernikako Akordioa izango da gure bide-orria.
- Gure kudeaketa-eredua**
- Urretxu eta Zumarragako koordinazioa: koordinazio-gune iraunkorrak, baliabideak partekatu eta azpiegituretan osagarritasuna.
- Udalen izaera publikoa indartu zerbitzuen kudeaketa publikoa berreskuratuz.
- Udalgintza parte-hartzailea, herritarren ekimenean eta demokraziaren zentzurik sakonenean sinesten dugulako.
- Kudeaketa gardena, gertukoa eta irekia.
- Kudeaketa zorrotza eta zerbitzuen kalitatea bultzatuko duena.

PP: “Pikarokeriarekin bukatu behar dugu eta laguntzak benetan behar dituztenek jasotzea bermatu”

Datozen lau urteak bereziki zailak izango dira udalentsat. Izan ere, krisiaren ondorioz zerbitzuak eskaintzeko errekurtso gutxiago dituzte. Baina Alderdi Popularrak udalak pertsonen zerbitzura egon behar dutela eta sistemaren oinarriko pieza direla defendatu du beti. Izan ere, herritarren premiazko beharrei erantzuna ematen diete. Ez dugu gure bizilagunak, bereziki premia gehien dutenak, babesteari uko egin nahi.

Hala, une honetan inoiz baino beharrezkoagoa da gizarte laguntzen sistema zaintzea. Diru gutxi dago eta benetan behar dutenei eman behar zaie. Pikarokeriarekin bukatu behar dugu eta laguntzak benetan behar dituztenek jasotzea bermatu.

Helburu hori lortzeko aurrekontuen egonkortasuna, gastuen kontrola eta kudeaketa eraginkorra helburu duten politikak bultzatuko ditugu. Espainiako gobernuan dagoen alderdiaren kudeaketa txarrak eta beste alderdi batzuek aurrekontuari eskainitako babesak krisiaren ondorioak larriagoak izatea ekarri du. Guk herri mailako ekonomia dinamizatuko eta enplegua sortuko duten neurriak bultzatuko ditugu.

Alderdi Popularrak pertsonen iniziatiban sinesten dugu eta lizentzia, tasa eta erregulazio administratiboen sistema aztertu eta sinpletu behar dugu enpresen lana errazteko eta ekintzaileei trabak kentzeko. Gainera, udalen eta enpresarien arteko hartu-emana bultzatuko dugu negozio berrien garapena laguntzeko.




Testuinguru honetan gazteen langabezia arazo larrietako da. Udalek, gainontzeko instituzioekin batera, gazteei lana lortzen lagundu behar diete. Gure gazteak gure etorkizuna dira eta aukerak behar dituzte. Ez dugu nahi aukera faltagatik euren jaioterria uztea. Udalek eskaintzen dituzten lanpostuetara bidea erraztu behar zaie eta familia dutenek lehentasuna izan behar dute. Bestalde, tailerrak martxan jarri behar dira lanpostuen sorrera bultzatzeko.

Etxebizitzaren arazoari dagokionez, alokairuzko etxebizitza babestuei lehentasuna emango diegu, hauek gazteen premia eta ahalmenetara hobeto egokitzten baitira. Erosketa ahalmentzen


duten alokairu programak ere bultzatuko ditugu.

Gazteak eta euren kezkak oso garrantzitsuak dira Alderdi Popularrarentzat. Aisialdiko ekintzak eta garapen kulturala bateratzeko neurriak hartuko ditugu. Gazteen alde lan egiten dutela erakusten duten elkarteei babes berezia eskainiko diegu. Udaletik kirola ere bultzatuko dugu. Ezin gara adinekoez ahaztu. Askok lehentasuna ematea merezi duten arazoak dituzte. Gainera, arazo hauek larritu egiten dira egungoa bezalako krisi garaietan. Laguntza zerbitzuak indartuko ditugu eta behin-behineko edo behin-behineko ezintasunen bat dutenei etxez etxeko laguntza eskainiko diegu.



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Kanpainaren aurkako kanpaina

Udaberria sekula baino lehenago loratu zaigun honetan, loreez harago lozorroan zegoen fauna berezi batek hibernatzeari utzi eta gure kaleak hartu ditu. Demokrazia bi edo lau urtean behin pasatu beharreko ITV-a bailitzan, aurpegian irribarrea margotu eta ezohiko lekuetan topatuko dituzu azken inozoak harrapatu nahian.



Benetan, eskertzen dizuegu ahalegina, baina kanpainarako bitaminak hartzen hasi aurretik esan nahi dizuegu, gugatik behintzat, ez egiteko ahaleginik. Gorde photoshop teknikarietan, piruleta eta pegatinetan, kalean inork begiratzen ez dituen karteletan edo alferrikako parafernalia guzti horretarako gorde duzuen diru hori guztia eta eman benetako erabilera bat.

Kalean umeak musukatzearekin inor konbentzitu al duzue inoiz? Edota egunkariko hamar argazkitan aurpegi behartu berarekin agertzearekin? Bide batez, inork zenbatu al ditu UTB-n, —erres-

petuagatik U horri lagunartean eman diogun adiera ez dugu hemen azalduko— gure alkateak azkenaldian bete dituen minutuak?

Armairutik atera berrien agerpen espontaneoak, sekula agurtu ez gaituen horren keinu abegikorrek edota facebook-eko gonbidapenek, gu bezalako kakanahasleek espazio hau bete dezagun baino balio ez dutelakoan gaude. Hautua egina dugu, gure kandidatuak egunero aldamenean ditugun horiek dira. Prentsaurrekoak eman beharrean Urola, Goierri edo Gaintxun jokalaria edo delegatu diren horiek, podiumean sariak eman baino erre-pideko bidegurutzeak zaintzen dituztenak, eraikinei dantza egin edo soinua jotzen diotenak, kontzertuak azpikontratatu beharrean Ku-ko oholtzara igotzen direnak, egunero irrati bat airera ateratzen dutenak, Zumarragan bizi direnak... Lasai irakurle, gu bezalako demagogoei ere gero eta gutxiago geratzen zaigu.

Aurten Iparragirrereren heriotzaren 130. urteurrena da. Zer diozu Urretxuko musikariaz?



Oihana Irastortza



Ez nuen urteurrenaren berri. Egia esan, ez dut bere bizitzari buruzko berri handirik. Beste musika mota batzuk nahiago ditut eta, beraz, ez dut Iparragirrereren abesti kuttunik. Abestea atsegin dut, baina irakaslea naizenez beste kanta batzuk abestea tokatzen zait: haurrentzako kantak. Dena den, ikastolan eta etxean bakarrik abesten dut.

Juan Martin



Ez nuen urteurrenaren berri. Egia esan, ez dakit berari buruzko gauza handirik. Gitarra jotzen zuela eta buhamea zela besterik ez. Bere abesti batzuk ezagutzen ditut, noski. Musika asko atsegin dut eta gaztetan El Trebol taldean jotzen nuen. Taldea Ordiziako lagun batek, Tolosako batek, nire anaiak eta laurok osatzen genuen eta hainbat herritan jo genuen.

Rosa Mari Arnaez



Nik ere ez nuen urteurrenaren berri. Iparragirreri buruz, betikoaz gain, bilobak kontatzen didana dakit. Izan ere, ikastolan berari buruzko gauzak irakatsi dizkiote nonbait. Musika oso gustuko dut, baina abestea ez.

Mila Mujika



Banuen urteurrenaren berri. Iparragirreri buruz ez dakit gehiegi: denok dakiguna. Bizizalea zen, baina berari esker da eza-guna Urretxu. Abesti ederrak egin zituen. Urteurrena gogoratzek merezi du. Abestea asko gustatzen zait eta badakit kantu taldea sortu dela. Orain ez dut astirik, baina etorkizunean beharbada ekimenean parte hartuko dut.

Gaia: Gazte sentitzen naiz, eta zer???

Doinua: Back home in Derry

Nerea Elustondo



Nahiz ta amaren sabel barruan
goxo nengoen artean...
Jaiotzen bainintzen Realak (lehen) liga
irabazi zun urtean,
naufregatzea omen dagokit
krisiaren uhartean,
guztia patroli berberarekin
neurtzen den gizartean.

Ekonomia krisiarekin
aski ez balitza legez,
nola bizitzan beste bi heren
falta zaizkidan gehienez...
inongo duda existentzialik
ez sentitu arren berez,
jaiotegunak markatzen digu
noiz deprimitu ta noiz ez!

Mundu hontako hiltzaile ankerren
arte dago denbora ,
lehen zimurrak izan daitezke
gertakari horren froga...
umeek ere jada kalean
deitzen didate señora
eta ni berriz, inuxentea!
Begiratzen dut albora!

Gazte sentitzen naiz, eta zer???

iritziz iritzi

Joxe Manuel Bereziartua



30 euroko bokatak

Telebistan ematen ari dira albistearen berri. Bost tipo atxilotu dituzte Bilbon atrakatzailerik talde batekoak zirela eta. Pako begira dago, eta bat-batean bururatu zaio berrietako bat ezagutzen duela. "Sorkunde, etorri momentu batean, azkar!!". Sorkunde hor dator, patata bat eskuan, eta beste an labana, sukaldean jarduteko mantala jantzita. "Ezagutzen duzu hori?" Sorkunde begira dago, "Ez". "Begiratu ondo". Sorkundek arretaz begiratzeko du, baina ez daki telebistan agertzen den gizailean iletsua nor den. "Bai, emakumea, kenduiozu peluka, eta bera da; Aritz tabernako kamareroa!". "Eee? Bai zera. Kamareroa banketxeak lapurtzen?". "Bera da! gogoan dut nola aritu zinen berarekin diskutitzen bokatak zein garestiak ziren".

Telebistak jarraitzen du: "Atxilotuen artean Bilboko taberna ezagun bateko jabea dago, Josu ezizena-rekin ezagutzen den Aritz jatetxeko jabea". "Ehh? Esan dizut!!", oihukatzen du Pakok irabazlearen harrotasunarekin. "Hori da bokatak atera eta gero 30 euro kobratu nahi ziguna?" dio Sorkundek. "Horixe bera, Krixtoenak esan zenizkion!" dio Pakok algara batean. "Esango didazu!! 30 euro hiru bokata eta bi Coca Colagatik!! Oraindik horrelakorik!!". "Ba begira, orain ez ditu asko aterako. Urte batzuk egingo ditu kartzelan". "Ondo merezita!!" dio Sorkundek sukaldera bueltan. Sorkunde, patatak txukun-txukun zuritzen dituen bitartean, marmarka ari da. "Bankuak lapurtzea gauza bat da, baina, 30 euro hiru bokata!!"

Urretxu-Zumarraga Ikastola

Garaialde Lizeoa

Goi mailako Heziketa Zikloetarako nahiz Unibertsitaterako prestakuntza egokiena

Zergatik Lizeoan?

-Kalitatezko hezkuntza eta emaitza arrakastatsua: bai goi mailako Heziketa Zikloetarako, baita Unibertsitateko edozein gradutarako ere.
-Tutoritza pertsonalizatua eta orientazio profesionala.

-EGArako prestakuntza.

-Irakasleak eskura ordutegi zabalean.

Lizeoko eskaintza:

-Zeintziak eta Teknologia Batxilergoa.

-Giza eta Gizarte Zientzietako Batxilergoa.

-Batxilergo formatiboa.

Aurrematrikulazio datak:

-Maiatzaren 2tik 11ra.




www.uzikastola.net

urretxu@ikastola.net


Labeaga kalea, 25 - Urretxu - ☎ 943 72 21 12





▼
Euskal Herriko Itzulian parte hartu duten birrindulrietako batzuk.

Gotzon Aranburu





Joxe Mari Iparragirre

BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Santa Barbara bidea z/g. - Telefonoa/fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
jmiparragirre@edunet.es - www.jmiparragirre.net/web - 20700 - URRETXU (Gipuzkoa)

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa
Osasun familia
A eta D ereduak

Aurrematrikula:
Ekainaren 1etik 10era (biak barne).
Matrikula egiteko epea:
Uztailaren 4tik 8ra (biak barne).



Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, zaharren egoitzetan, eguneko zentruetan, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

Otamotz
Herri Aidiakaria

EGIN HARPIDEDUN

GOIERRIKO hitza Info

OTAMOTZ
urtean 20 euro

ZINTZO MINTZO
urtean 25 euro

OTAMOTZ+HITZA
urtean 75 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------



Bitsa eskuetan

Miren Agur Meabe

Bizitza etengabeko aldaketa dela uzten dute agerian Meaberen poemek. Eta liburu hone-tan bitsa da horren adierazle. Amodioaren galera du ardatz lehenengo atalak, amaren galera bigarrenak, desio berriak hirugarrenak. Poeta ez da bere tragedia pertsonalen gatibu geratzen. Lehenengo bere izatea berresten du definizio batekin: "emakume kaierduna naiz; andre mamitsua nauzu: euskal poesiaren larrosa". Ondoren, bere honda-

mendiaren alde egiten du topa: "edaten dut etxe suntsituagatik". Jarraian, orainari ematen dio ongietorria: "nahi dudanetik ezer ez dut, momentu hau salbu; ez du balio fedea galtzerik". Eta bide berrietan barrena abia-tzen da, betiko idazkera indartsu, oinarrizko eta hunkigarriaz, baina bizi-bulkada sutsu eta borrokatu berri batez: "Andre eta jabe, lotoreak hankartean, edo etanola".

Antxiñe Mendizabal


Carried to dust

Calexico

Muga-mugako sentimenduak omen interesgarrienak. Muga-mugako bizipenak dira emankorrenak sorkuntzarako. Tucson (Arizona, AEB) hiria Mexikotik gertu dago, eta han ontzen dituzte abestiak Calexico-koek. Muga-mugan egonda, alde bateko zein besteko eraginak nahasten dituzte dotore. Amerikana-ren soinu iradokitzaileak, tex mex-a, eta Mexikoko folkloreak ahaireak. Joey Burns-en ahotsa egokia da

pop melodiei bidea egiten uzteko, eta instrumentisten konponketek, berriz, post rock delakoaren kutsua eman zioten Calexico-ren seigarren diskari. Gozagarrria benetan. Arizonako highway batean auto-arekin segi eta segi zoazela irudika deza-kezu, adibidez. Edo udako gau epelen deia sentitzera irits zaitezke tronpeten deiadarrarekin.

Igor Susaeta



Exit through the gift shop

Banksy


Film honen izenburua museoetan garai batetik hona sarriago irakurtzen den kartel batetik hartua dago. Kartela irteera non den jakinarazteko erabiltzen da: hots, opari denetik barrena pasaz aurkituko duela irteera. Denetik saltzen dute halako dendetan, marketinak dena zipriztindu duen gure garai moderno honetan. Arte ofiziala merkantilizatuta dago, baina berbera gertatzen ari ote zaio kaleko arteari, espazio urbanoan egiten

den arteari? Filmaren izenburuak irudikatzen duen metafora horren barnean dago filmak proposatu nahi duen hausnarketa. Kaleko artearen erakusgarri diren hainbat artista aurkezten dizkigu filmak, baita euren lanak, euren motibazioak eta asmoak zeintzuk diren ere. Dokumental benetan interesgarria eta oso oso dibertigarria. Maiatzaren 13an, 22.15ean, Zelai Arizti aretoan.

ButaK 21 zineklub taldea

Josean Iribarren: 25 urte infekzioen aurka borrokan

Josean Iribarren mediku zumarragarrak Donostia ospitalean lan egiten du: gaixotasun infekziosoen saila zuzentzen du, hain zuzen ere. Bere bulegoan hartu gintuen eta luze eta zabal hitz egin zuen bere bizitzaz, lanbideaz eta zaletasunez.



Josean Iribarren Donostia ospitaleko bere bulegoan.

Non jaio zinen?

Eitzagakoa naiz. Umetan Antio hiribidean bizi izan nintzen eta 12-13 urte nituenean Busca Sagastizabalera jaitsi ginen.

Nongoak dira gurasoak?

Aita nafarra zen, Urrotzkoa. Ni jaio baino hamar bat urte lehenago etorri zen Zumarragara. Ama, berriz, Zumarragakoa da. Eitzagakoa. Aita zortzi anaia-arrebetan gazteena zen eta osaba batek jostun lana irakatsi zion, baina Urrotz inguruan ez zegoen lan aukerarik. Hori dela eta, hona etorri zen. Hasieran basoan lan egin zuen. Ondoren jostun lan egin zuen, hil zen arte. 14 urte nituenean hil zen.

Zenbat anaia-arreba zarete?

Seme bakarra naiz, baina 9 urte nituenean bi lehengusu gure etxera etorri ziren: euren aita hil egin zen eta gurera ekarri zituzten. Bata ni baino urtebete gazteagoa da eta besteak nik baino lauzpabost

gehiago ditu. Azken hau nire etxean bizi da oraindik. Hala, nik baino urte gehiago eman ditu nire etxean.

Nolako zen Eitzaga zure haurtzaroan?

Mundu oso berezia zen. Gabeziak zeuden, baina bizitasuna ere bai. Kanean jolasten genuen. Haur asko geunden: asko bertakoak ginen, baina beste asko etorkinak. Oroitzapen oso onak ditut: aldapan futboleko jokatzeko genuen, ez zegoen urrik eta kamioiek ura ekartzen zuten...

Non egin zenituen ikasketak?

Lehenengo Eitzagan bertan eta gero Nazionaletan. 7-8 urterekin La Sallera joan nintzen eta Batxilergoko laugarren mailan institutura. Ordurako aita hilda zegoen eta ez genuen diru asko. Arantxa Artexe irakasleak UBI Lanbide Unibertsitatean eginez gero beka lortzeko aukera nuela azaldu zigun. Ikasturte hartako oroitzapen onak ditut, baina igandeak gogorrak ziren: lagunak utzi behar nituen 19.45eko autobusa hartzeko. Ostiraletan Maltzagara joaten ginen autostop egitera. Behin Gaztelu Realeko jokalaria hartu gintuen.

Zeintzuk ziren zure zaletasunak?

Ikasketek denbora asko kentzen zidaten, baina informatuta egotea asko gustatzen zitzaidan. Izan ere, garai berezia zen: Franco hil aurrekoa. Ondoren Valladolidera joan nintzen Medikuntza ikastera eta han zinera eta pilotalekura joaten nintzen.

Zergatik ikasi zenuen Medikuntza?

Ez dakit. Garai hartan Valladolid oso urrun zegoen. Hiruhileko osorako joaten ginen. 1975ean joan nintzen. Lehen mailan 1.000 lagun geunden. Izugarria izan zen: 40 laguneko klasetik klase handi batera pasatu nintzen. Urrian joan ginen eta aza-

roaren 20an Franco hil zen. Astebeteko oporraldia eman ziguten. Lagun onak egin nituen eta urtero maiatzaren 1ean elkar-tzen gara. Baina Valladolidera joatea gogorra zen eta itzultzeko gogoia nuen.

Lortu al zenuen?

Zenbait jende Donostian Medikuntza eskolak eman ahal izateko borrokatu zen eta horri esker laugarren mailan itzultzeko aukera izan nuen. Ikastaroa abenduaren 5ean hasi genuen. Urritik abendura bitartean ezinegon apur bat sentitu genuen, baina gero dena oso ondo joan zen: klasean 50-60 inguru ginen, praktikak genituen, irakasleek ilusio handia zuten... Azken hiru ikasturteetan oso gustura aritu

“Espezialitatea bukatzen ari nintzenean

lehen HIES kasuak

heldu ziren: gaixoak

berehala hiltzen ziren”

nintzen, baina garai hartan lana topatzea oso zaila zen. Medikuntzaren ikuspuntu globala nahi nuen eta barne-medikuntza ikastea erabaki nuen, baina horretarako MIR delakoa egin behar zen eta hori egiteko azterketa bat gairatu behar zen. Azterketa horri beldur handia genion, gure etorkizuna jokoan baitzegoen. Bost lagun artean etxebizitza bat alokatu genuen Iruritan azterketa prestatzeko. Hiru hilabete eman genituen bertan ikasten: igande gauean joaten ginen eta larunbat goizean itzuli. Gogorra izan zen eta hiruk bakarrik

jasan genuen. Azterketa ona egin nuen eta askok Madrilerara edo Bartzelonara joateko esan zidaten, han ospitale hobekak zeudela eta. Baina Donostian gustura nengoen eta gelditzea erabaki nuen. Gainera, barne-medikuntzan lanerako aukerak zeudela uste nuen. Baina ez zen hala eta sekulako kolpea jaso nuen: 20.000tik 1.700ek bakarrik pasatu genuen galbahea eta lanik ez zegoela jakitea oso gogorra izan zen. Zorionez, urte haietan giro oso ona izan genuen eta espezialitate bukatu genuenerako ospitale berriak ireki ziren. Bukatu eta berehala Zumarragako ospitalera joan nintzen. Zumarragan 40 egun bakarrik eman nituen. Izan ere, Donostian larrialdi saila ireki zuten eta deitu egin zidaten. Ospitale hau ondo ezagutzen nuen eta itzultzea erabaki nuen.

Nolakoak izan ziren lehen urte haiek?

Espezialitatea bukatzen ari nintzenean lehen HIES kasuak heldu ziren. Barne-medikuntzan ingresatzen genituen, Daniel Zulaikaren agindura. Gaixo haiek oso argalduta heltzen ziren eta berehala hiltzen ziren. Informazioa biltzen hasi ginen eta, larrialdietan nengoen arren, HIESa zuten pazienteei buruzko doktorego tesia egiten hasi nintzen. Astean behin medikuek gaixoak niri bidaltzen zizkidaten. Baina elur bola hazten joan zen eta beraiekin astean bi goiz ematera pasatu nintzen. Hala ere ez zen nahikoa eta Osasun sailburuak Zulaikari deitu zion HIES plana koordinatzeko. Hala, 1988an arazoari erantzun bateratua ematen zioten infekzioso unitateak sortu ziren. Unitate hauek ospitalizazioa, kontsulta eta etxez-etxeke arreta eskaintzen zuten. Garai hartan infekzioak tratatzen geni-

tuen, baina birusaren aurkako ezer ez genuen eta azkenean gaixoak hil egiten ziren. Birusak defentsak jaisten zituen eta horrek infekzioak sortzen zituen. Batzuek tratamenduak zituzten eta besteek ez. Oso gogor jo zuen eta garai oso gogorra izan zen. Toki batzuetan belaunaldi ia oso-ari eragin zion.

Nolakoa izan zen bilakaera?

Unitateak 10 ohe zituen, baina ez zen nahikoa. 1992rako 20 genituen. Askotan hemen 20 gaixo genituen eta hemendik kanpo beste 15. Hasieran ez zegoen birusaren (GIB) aurkako tratamendurik, infekzioen aurka bakarrik. Ondoren botika bat kaleratu zen, baina bizi itxaropena hiru hilabete besterik ez zuen luzatzen. Handik denbora batera defentsa gutxi edukitzeagatik sortzen ziren infekzio batzuen sorrera botika bidez ekidin zitekeela jakin genuen. Baina defentsek behera egiten jarraitzen zutenez, infekzio larriagoak sortzen ziren. 1994-1995 urteetan bi egunetan behin gaixo bat hiltzen zitzaigun. Familientzat oso gogorra izan zen, baina baita guretzat ere. Izan ere, gazteak ziren, gure adinekoak, eta egoerak ez zuen hobera egiten. Zorionez, asko ikertu zen eta 1996an Vancouverren botika familia berria aurkeztu zuten: emaitzak ikusgarriak ziren, miraria zirudien. Osasun sistema publikoa izatea funtsezkoa da: berehala botika horiek ekarri genituen eta hildakoen kopurua asko jaitsi zen. Astean hiru heriotza izatetik urtean 15-20 izatera pasatu ginen. Ospitaleratzeak %50 jaitsi ziren. Sekula ez da halakorik gertatu medikuntzaren historian.

Zein da egungo egoera?

Kutsatuen %90 Sahara azpiko Afrikan dago. Tratamenduak heltzen ari dira, baina

oraindik ere arazo larria da bertan. Gurean egoera lehen baino askoz ere hobe da. Dena den, birusa nola transmititzen badakigu, tratamendu egokiak ditugu... zergatik hiltzen da jendea oraindik? Zoritxarrez urtero infektatu berriak daude eta askotan diagnostikoa berandu egiten da. Askotan berandu joaten dira proba egitera, infekzio bat azaltzen denean. Norbait HIESaren birusak infektatuta badago oso garrantzitsua da jakitea: botikekin bizitza normala egin dezakeelako eta arretaz ibili behar duelako. Baina nire ustez batzuek beldurra galdu dute. Ezin da orokortu, baina gay batzuek errespetua galdu diote. Ez da ahaztu behar sexu bidez transmiti-

“Sistema publikoa izatea funtsezkoa da: berehala botikak ekarri genituen eta hildakoen kopurua asko jaitsi zen”

tzen dela: ezezagun batekin babesik gabeko sexu harremanak izan dituen oro arriskutan dago eta proba egin behar du.

Nolakoa da birusa dutenen bizitza?

Orokorrean ona. Askok pilula bakarria hartzen dute egunean eta lan egiten dute. Euren bizi kalitatea egunero intsulina jarri behar duen diabetikoarenaren parekoa da. Batzuek, ordea, medikazioarekin arazoak izan dituzte.

Nolakoa da zuen lana egun?

Aipatutako mirari horri esker beste gaixotasun infekzioso batzuk lantzen hasi ahal

izan genuen. Orduetik gure jarduna dibertsifikatu egin da. GIBa duten 1.400 pazio- te ditugu, baina beste asko ere bai: atal bigunetako infekzioak, pneumoniak, bihotzeko balbuletako infekzioak, giltzurrunetakoak... Gainera, infekzioak dituzten beste unitateetako gaixoei zerbitzua eskaintzen diegu. Traumatologoen, adibidez, geroz eta protesi gehiago jartzen dituzte eta horiek batzuetan infektatu egiten dira. Tumorea dutenek, transplantea izan dutenek... ere batzuetan infekzioak izaten dituzte. Alerta epidemiologikoak ere gure esku daude.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Medikuntza asko aldatu da eta biztanleria asko zahartu da. Egun garai batean baino askoz ere adineko gehiago daude ingresatuta. Adinekoek gaixotasun asko dituzte aldi berean eta lehen ez genuen halako pazienterik. Geroz eta jende gehiago dago defentsa gutxiarekin eta etortzen diren gaixoak ahulagoak direnez ospitalean infekzioak hartzeko arriskua dute.

Gaitz berririk espero al duzue?

Azken urteotan batzuk azaldu dira. Ez dute HIESak izan duen eragina izan, baina halako egoerei erantzuteko prest egon behar dugu. Hegazti-gripearen pandemia izango zela uste genuen. Ez zen heldu, baina badaezpada ere prest geunden. Gehiegizko neurriak hartu zirela esan zen, baina heldu izan balitz... A gripea zorionez ez da guk espero bezain kaltegarria izan, baina gaixo batzuk hil egin dituela kontuan izan behar da. Hori dela eta, ez dut ulertzen jendeak halakoetan zergatik ez duen bakuna jartzen.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

53 egun behar ditut eta infekzioen munduan lan egiten jarraitzeko asmoa dut. 25

urte baino gehiago daramatzat honetan eta hurrengo urteetako erronka erreleboa bermatzea da. Bestalde, espezialiston lana infekzio konplexuak tratatzea da eta ez dugu aspertzeko aukerarik izango.

Nahikoa mediku ba al dago?

Medikuak falta dira. Medikuen baten formazioa oso luzea da: karrera sei urtekoa da eta espezializazioa lau zapabostekoa. Horrekin dezenteko maila lortzen da, baina maila ona lortzeko urte gehiago behar dira. Krisi garaiak zailak dira: pertsonalak ez du gora egiten eta horrela zaila da jende gaztea trebatzea.

Lehen osasun zerbitzua publikoa defendatu duzu.

Funtsezkoa da. Hori da eduki dezakegun gauzarik onenetakoa. Ez dakit jendea horretaz konturatzen den. Langabezia dagoen norbaiti transplantea eskaintzeak ez du preziorik. Etorkizuna nolakoa izango den? Seguru aski sistemak oparotasun urteetan gehiegi eskaini du. Ezinbestekoa zer den argi izan behar da. Urte batzuetan dena garrantzitsua zela zirudien, baina hori ez zen jasagarria. Ezinbestekoa zer den eztabaidatu behar dugu. Hausnarketa medikuek eta politikoei egin behar dute. Ondo egiten ez badugu egun batean mozketak behar baino handiagoa izango da. Ez da medikuntza irizpideak jarraituz egingo, ekonomia irizpideak jarraituz baizik. Horrek pena handia emango lidake. Gizarteak geroz eta gehiago eskatzen du, baina eskatzen diren gauza asko ez dira funtsezkoak. Osasun sistemak dena konpontzea nahi dugu, baina hori ez da posible. HIESaren munduan, adibidez, eztabaida interesgarria dago: lehen hiru pilula hartzen zituzten egunean eta orain baka-

rra. Azken hau eskaintzea egunean hiru euro garestiagoa da. Hori diru asko da sistemarentzat eta beharbada pilula bakarrak lehentasuna duen zehaztu beharko da.

Orain arteko mozketei buruz zer iritzi duzu?

Gure lan baldintzak onak dira, baina esan bezala hausnarketarako garaia da: funtsezkoa zer den zehaztu behar da. Sistema ez da jasagarria. Gu gara medi-

“Seguru aski sistemak oparotasun urteetan gehiegi eskaini du eta ezinbestekoa zer den argi izan behar da”

kuarengana gehien joaten garen europarrak. Izan ere, medikua eta liburutegia bakarrik dira doanekoak. Lehen arazoak zituena apaizarengana joaten zen.

Gaia aldatuz, zeintzuk dira zure zale-tasunak?

Lan honek denbora asko hartzen du: asko irakurri eta ikasi behar da, noizean behin hitzaldiak prestatu behar dira... Irakurtzea asko gustatzen zait: bai nobela eta bai entsegua. *Inés y la alegría* irakurtzen ari naiz. Bestalde, astearte arratsaldean frontoira joaten naiz frontenisean jokatzera. Bidaiatzea ere asko atsegin dut, baina azkenaldi honetan ez dugu aukera handirik izan. Cadizeko kostaldea asko gustatzen zait. Baita autoa hartu eta tokiak ezagutzera ere.

Real zalea ere bazara.

Bazkidea naiz aspalditik. Seme-alabak nirekin etortzen dira. Aitagarreba inprimatzailea zen eta Realaren sarrerak inprimatzen zituen. Berak zaletu zituen. Iaz Salamancara joan nintzen semearekin Realaren partida ikustera.

Zenbat urte dituzte seme-alabek?

Semeak 20 urte ditu eta alabak 18. Semea Historia ikasten ari da. Ez dirudi lan eskaintza handirik dagoenik alor horretan, baina garrantzitsuena norberak gustuko duena ikastea da. Harremanetarako iaioa da eta udan Aspacekoekin joan zen oporretara. Alabari, berriz, arraun egitea gustatzen zaio. Medikuntza ikasi nahi du.

Non ikusten duzu zure burua erretiratu ondoren?

Erretiroa urrun ikusten dut oraindik, baina egunerokoa egun baino lasaia izatea gustatuko litzaidake. Oso zaila da denetara heltzea. Nire lana asko gustatzen zait, baina beste abiada batean lan egin nahiko nuke. Egunero egiten dudana asko gustatzen zaidanez, erretiroa gogorra egingo zaidala iruditzen zait. Nire ustez erretiroaren inguruko hausnarketa ere beharrezkoa da. Gaur 100%ean lan egitea eta bihar %0an ez zait ulergarria egiten. Erretiroa pixkanaka hartu beharko litzateke: geroz eta gutxiago lan egin, atzetik datozenak prestatu...

Zumarragara asko joaten al zara?

Gutxitan. Mutikoa kanpoan ikasten ari da, emaztearen amak jada 90 urte ditu eta igandeetan gure etxera etortzen da bazkaltzera... Nire ama Donostiara etortzea ni Zumarragara joatea baino arruntagoa da. Joaten naizenean ez naiz Eitzagatik jaisuten: amaren etxean bazkaldu eta buelta.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Ekarri zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premark.com

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68



Lanbiza

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

Herrizko eta Publikoaren Enpresak

HERCE

Enpresak, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 9 - II 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@mendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

TABERNA Jatetxea

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80



alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga



SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI



MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Zumarraga
Tel. 943 72 05 62

Otamotz

Herri Aldizkaria

Iker - 647 319 775 - beasain@iragarri.net

TOKI APROPOSA
DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA
JARTZEKO

Aritz Egea: korrika, bizikletan eta igeri... Hawairaino

Aritz Egea urretxuarrak 26 urte ditu eta betidanik egin du kirola. Euskal Herriko triatloilari onenetakoa da eta iaz Hawaiko proba entzutetsuan parte hartu zuen. Alejandro Egea zikloturista eta masajistaren biloba izanik, ez da harritzekoa halako grina izatea.



Aritz Egea Hawaiko helmugan sartzen.

Zein ibilbide osatu duzu kirol munduan?

Atletismoan hasi nintzen, Goierri Garaia taldean, Miguel Cristobalekin-eta. Ondoren txirrindularitzan aritu nintzen, afizionatu mailako lehen urtera arte. Mendiko bizikletan ere ibili nintzen eta Behobia-Donostia lasterketan parte hartu ondoren duatloian hasi nintzen. Azken hiru urteetan triatloia jorratu dut batik bat. Iraupen luzeko probetan parte hartu dut beti, proba azkarretan ez bainaz sekula ona izan.

Nolakoa izan zen txirrindularitzan osatutako ibilbidea?

Urte gehienak Goierri eman nituen. Ondoren Oriakorekin aritu nintzen. Ikasketengatik utzi nuen. Txirrindularitzak ordu asko eskatzen ditu eta oso zaila da ikasketekin bateratzea. Egia esan, orain bizikletan aritzen nintzenean baino gehiago entrenatzen dut.

Zer ikasketa egin dituzu?

Automatika eta Elektronika Goi Mailako Ingeniaritza ikasi nuen eta orain doktoregoa egiten ari naiz Arrasateko Unibertsitatean.

Noiz hasi zinen triatloietan parte hartzen? Askokosta al zitzaizun igerilekuan ondo moldatzea?

Duela bospasei bat urte hasi nintzen, baina hiru denboraldi bakarrik daramatzat serio. Egia esan, zortea izan dut. Batzuei asko kostatzen zaie igeriketa proba domeinatzea, baina ni hasieratik ondo moldatu nintzen. Hori bai, hasieran asko hobetzen da eta gero gehiago kostatzen da. Dena den, poliki-poliki hobetzen ari naiz. Korrikan lortutako emaitzekin ere harrিতuta nago. Horretan naiz indartsuena.

Hiru kirolek garrantzia berbera al dute triatloian?

Hori distantziaren arabera da. Distantzia motzetan oreka behar da, baina luzeetan igeriketak garrantzia galtzen du.

Txirrindularia zinenean baino gehiago entrenatzen duzula esan duzu.

Bataz beste hiru ordu entrenatzen dut egunean. Asteburuetan, batzuetan, zortzi ordu entrenatzen dut. Pixka bat hobetzen duzun heinean gehiago entrenatzen duzu. Senior mailako lehen urtean emaitza onak lortu nituen, 2009an dagoeneko proba bat irabazi nuen eta iazkoa denboraldi onena izan zen: ez nuen probarik irabazi, baina postu on asko lortu nituen. Gipuzkoako txapelduna izan nintzen esprint distantzian, olinpikoan eta luzean. Zarauzko proban, adibidez, 12. sailkatu nintzen: lehen ez profesionala izan nintzen. Bestalde, Iron

Manean estreinatu nintzen eta gainera Hawaira joateko aukera izan nuen.

Nola ikusten duzu etorkizuna kirol munduan?

Sekula ez da nire burutik pasatu profesionala izatea, ezta txirrindularitzan nenbilenean ere. Triatloia hirugarren mailako kirola da: diru oso gutxi mugitzen da eta

“Sekula ez da nire burutik pasa profesionala izatea, ezta txirrindularitzan nenbilenean ere”

mugitzen den guztia afizionatuek mugitzen dute. Espainian oso profesional gutxi daude eta gainera gaizki bizi dira: ez dute bizimodua aurrera ateratzeko adina lortzen. Ez zait bizimodu hori gustatzen. Ikasketekin jarraitzeko asmoa dut eta denbora dudan bitartean triatloi probetan parte hartuko dut.

Iaz behintzat nonbaitetik denbora atera zenuen: lehenengoz Iron Man proba egin zenuen.

Alemanian izan zen, abuztuaren 1ean. Proba ondo prestatu nuen, baina halako distantzia luzean ez dago jakiterik zer gertatuko den: esperientzia dutenez ere zaila da. Ordu asko dira eta faktore askoren menpe gaude: gorputza, bizikleta... Ez zitzaidan ezer gertatu eta 29. postuan heldu nintzen. Nire mailan lau garrena. Hala, Hawaira joateko txartela lortu nuen.

Hori al zen zure helburua?

Beti duzu hori buruan. Txartela lortzen banuen joan egingo nintzela argi nuen.

Zer egin behar da lortzeko?

Mundu mailan 20 bat Iron Man daude eta profesionalak ez garenok adinaren arabera banatuta gaude. Ni 25 eta 29 urte bitarteko taldean nago. Talde bakoitzetik kopuru zehatz bat sailkatzen da. Hawaien 25 eta 29 urte arteko 150 bat lagun geunden.

Jon Azpiazuk ere parte hartu zuen. Urretxu eta Zumarragak bi ordezkari bidaltzea gauza handia da.

Ni ere iritzi berekoa naiz, baina dirua eskatzera joaten naizenean badirudi ez dela horren garrantzitsua. Zozketa bat ere egin behar izan nuen dirua lortzeko eta batzuek oporrak ordaintzea nahi nuela esan zidaten. Nahi nuelako joan nintzen, baina sailkatu beharra izan nuen. Mendira joateko diru-laguntzak eskatu dituzten lagunek nireak meritu handiagoa zuela esan zidaten.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Hawaiko Iron Man berezia da. Giroa ikaragarria zen. Sekula ez dut horrenbeste jende ikusi kirola egiten. Muntaia Frantziako Tourrekoaren parekoa da. Amerikarrak dena euren erara egiten dute, baina antolaketa lanetan oso onak direla onartu behar da. Proba egiten ari nintzen bitartean gauza oso berezia egiten ari nintzela zetorkidan burura: jende askok egin nahi duena. Batzuek bitzta osoan ezingo dute eta nik saiatu nintzen lehen urtean lortu nuen. Bestelakoan, proba ez da polita: gora eta behera, zuzen gune luzeak... Alemaniakoa askoz ere politagoa da.

Hawaiko triatloi proba joan aurretik



Aritz Egea iazko Iron Man proban parte hartu zuten gainontzeko gipuzkoarrek eta Jon Azpiazuren anaiarekin.

helbururen bat jarri al zenion zeure buruari?

Inoiz baino beldur gehiago nuen eta asko kostatu zitzaidan egokitzea. Igandean heldu ginen eta asteazkenean oraindik gaixo sentitzen nintzen. Zorionez, ostiralean ondo nengoen. Nire helburua bukatzea zen, ahal izanez gero hamar ordutik behera. Azkenean 9 ordu eta 22 minututan bukatu nuen. Harrituta eta oso pozik.

Errepikatzeko asmorik ba al duzu?

Joan aurretik ez nintzela gehiago joango esaten nuen, baina ez dakit. Egia esan, diru asko behar da eta psikologikoki oso gogorra da. 2010a oso gogorra egin zitzaidan. Otsailetik urrira burubelari entrenatu nuen: lehenengo Alemaniako proba prestatzeko eta gero

Hawaira joateko. Beste batzuek sailkapena lehenago lortzen dute, baina horrek ere bere alde onak eta txarrak ditu: atsedean hartzeko denbora gehiago duzu, baina aspertzeko ere bai. Alemaniakoa abuztuaren 1ean izan zen eta sasoi mantentzen saiatu nintzen. Atsedenerako egun oso gutxi izan nuen eta sentsazioak oso txarrak ziren: nekea, logura, gosea... Hawaira beldur-tuta joan nintzen, entrenamendu asko saltatu baintuen gorputzak ez zidalako erantzuten. Psikologikoki oso gogorra izan zen.

Eta orain zer?

Denboraldia abuztuan amaitu nahi dut. Ez dut Iron Man-ik egingo. Azken urteetan oporretara kirolean pentsatzen joan naiz eta burua erlaxatu nahi dut.

Donostiako Athleticorekin lehiatzen zara.

Hala da. Independente hasi nintzen, baina Josetxo Mujika Athleticon zegoen eta bere bitartez sartu nintzen. Euskal Herriko talde afizionatu onena da. Oso gustura nago beraiekin.

Distantzia motzetan jarraitu behar al duzu?


Bai. Batzuek Iron Man-a probatzen dutenean proba motzak lehiatzeari uzten diote, baina niri lehiatzea eta probetako giroa izugarri gustatzen zaizkit. Aurtengo helburu nagusiak Zarauzko proba eta Gasteizen jokatu den Espainiako txapelketa dira.

Entrenatzailerik ba al duzu?

Urte pare batean Athlonekin ibili nintzen. Orain beraiekin ikasitakoa praktikan jartzen dut. Ez dakit entrenatzaile batekin hobeto ibiliko ote nintzen. Batzuetan horretan pentsatzen dut, baina neure kasa gustura nabil eta presioa txikiagoa da. Gainera, entrenatzailea edukitzea oso garestia da. Jendeak 70 eta 150 euro bitartean ordaintzen du hilero.

Non atsegin duzu entrenatzea?

Urretxu eta Zumarragan, tamalez, ez dugu igerileku egokirik. Legazpira joaten naiz, Zumarragan baino kale gehiago baitaude eta hemen baino igeriketa kultura handiagoa baitago. Hemen jendeak askotan ez du ondokoa errespetatzen. Bizikletan ibiltzeko Nafarroa aldera joatea gustatzen zait: Altsasuko itzulia egitea. Korrika egitera bidegorrira joaten naiz, baina hor ere sekulako arazoa dugu. Legazpi aldera joaten naiz jende gutxiago izaten delako, baina jendeak kirolariok ez gaitu batere errespetatzen. Oso ondo iruditzen zait jendeak bidegorria ibiltzeko erabiltzea, baina zabalera osoa okupatu gabe.




Alex Areizaga

Informatika

Mendiko GPSa

Urretxuarren eta zumarragarren artean zabalduen dagoen zaletasuna, bizio gaiztoak aparte, mendizaletasuna da ziurrenik (*bizikletero* berri eta ugarien baimenarekin). Mendian ibilbide ezezagunei ekiteko modu ona GPSa da: ibilbidea ordenagailuan prestatu dezakegu, edota saretik jaitsi (wikiloc.com, mendiak.net...) eta GPS gailura sartu, mendian gida gaitzan. Gure onttoleku kuttunak gorde ditzakegu, behin eta berriro bortizki ustiatzera itzultzeko; altxor bat gorde dezakegu, geocaching komunitatearekin partekatzeko edota mendi ibilaldi bat grabatu dezakegu gero etxean aztertu ahal izateko (denborak, mailakatzea, distantziak...). Galtzen garenerako ezinbesteko laguna da, baina teknologiak huts egin dezakeela gogoratu behar dugu eta ez dator gaizki motxilan iparrorratz bat izatea. GPS gailu batzuk gomendatuko ditugu: kalitatea eta prezioa kontuan hartuta onena Garmin Legend HCX (166 euro) gailuak ematen du; diru gehiago badugu Garmin Oregon 450 (300 euro) dugu; eta gailu osoena, Compegpsen Twonav Aventura (600 euro). Jakintza zabaltzeko sareko atari bat: elgps.com.



Izaro Soraluze

Osasuna

Udaberriko astenia

Nekea, ahulezia fisikoa eta tristura dira udaberriko lehen berotasunekin agertzen diren asteniaren ezaugarri nagusienak. Urte sasoiaren aldaketak populazioaren ehuneko hirurogeiri eragiten dio, baina 60 urtetik gorakoak dira gehien nabaritzen dutenak eta 20 urtetik beherakoak, berriz, gutxien. Hainbat molestia eragiten ditu: kontzentratzea kosta egiten da, baita ideiak koordinatzea ere, oroimena ere gutxiagotu egiten da. Buruko minak, bertigo sentazioak eta beherako eta sabeleko minak ager daitezke batzuetan. Potentzia sexuala eta libidoa nabarmen gutxitzen dira eta loaren asaldurak agertzen dira. Sintomak arintzeko, elikadura zaintzea, kirol moderatuak egitea (lagungarriak insomnioaren aurka) eta eguneroko lanak pixkanaka eta beharrezko atsedenak hartuz egitea gomendatzen da. Bitamina-gehigarriak oso lagungarriak izan daitezke, baina kasurik gehienetan dieta orekatua da sendagairik egokiena astenia gainditzeko.

1996

Karmakros antzerki taldeko kideak

Estitxu Zaldua, Juanlu Escudero eta Jose Mari Tena *Txin txin hotsak ez du kezkatzen Gregorio* antzezlanara taularatu zuten garaian. Antzezlanara herritarrek egin zuten bere osotasunean: gidoia Patxi Iraetak idatzi zuen, zuzendaria Juanlu Escudero izan zen eta aktoreak Jose Mari Tena, Estibaliz Gutierrez, Estitxu Zaldua, Estitxu Sudupe, Iker Antia, Olatz Soraluze eta Estitxu Gomez. Argiztatze lanetan Alfonso Torregrosa aritu zen eta eszenografian Koldo Cadierno. Eszenarioa Esnal aroztegiak eta Oskar Cadiernok egin zuten, arroparen diseinua Mikel Arranzek eta Begoña Idiakezek eta kartela Pedro Narbaizak. Bukatzeko, Jose Antonio Tellez argazkilari lanetan aritu zen.



Miriam Luki

Miriam Luki urretxuarrak 37 urte ditu. Ikastolan ikasi zuen eta ondoren lizeora joan zen. EHUren Leioako kanpusean Kazetaritza ikasi zuen. "Oso argi nuen zer egin nahi nuen", dio. Goierriko Hitzan lan egiten du egunkaria sortu zenetik, 2004ko irailetik. Lehen Urretxu eta Legazpiko informazioaz arduratzen zen eta egun Zumarragakoaz. Maiatza gogorra izango da, udal hauteskundeak direla eta, baina animotsu ageri da. "Oso gustura nago. Herrian bertan lan egitea, lanera oinez joan ahal izatea, oparia da".

Zer izan nahi zenuen umetan?

Zer izan nahi nuen argi izan nuenerako gaztetxo nintzen. Kazetaria izan nahi nuen, jende asko ezagutzeko eta asko ikas-teko aukera izango nuela iruditzen baitezaidan.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Irakurtzea, mendira joatea, haizea hartzea eta bidaiatzea.

Bizitzeko toki bat?

Hemendik hurbil, berdin zait non. Urrun bizitzea zer den bada-
kit eta ez dut hegazkinik hartu nahi gertukoekin egoteko.

Idazle bat?

Julio Cortazar.

Nori egingo zenioke elkarrizketa gustura?

Jose Luis Sampedrori.

Gehien txunditu zaituen urretxuar edo zumarragarra?

Urretxu, Zumarraga eta Legazpin lan egin dudan urteetan benetako altxorak aurkitu ditut. Beraiek ezagutzea da lan honek eskaini didan gauzarik onena.

Zein albiste ematea gustatuko litzaizuke?

Urretxu eta Zumarragako udalen arteko elkarlana ia perfektua dela.

Zein albiste irakurtzea gustatuko litzaizuke?

Mundua irauli dugula.

Bereziki gogoratzen duzun lan eguna?

2006ko abenduko Urretxuko udalbatza lazgarria.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

Egindako azken oparia?

Arropa, lagun bati.



Eta jasotakoa?

Neoprenozko trajea eta olatuak.

Data bat?

Nire semea jaio zen eguna.

Mutil eta neska izen bana?

Mutil izena, Luka. Semearena. Sekula ez dut neska izen bat hau-tatu beharra izan.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Nire eskuetara heltzen diren guztiak irakurtzen ditut.

Gustuko telebista saioa?

Gutxi ikusten dut.

Bereziki gorroto duzuna?

Gorroto bat ere ez, baina gehienak soberan ditut.

Pelikula bat?

Historias de Filadelfia.

Liburu bat?

Rayuela.

Abesti bat?

El Cigalaren *Alfonsina y el mar.*

Soinu bat?

Itsasoarena.

Usain bat?

Kanelarena eta sagarrarena, konpota egiten ari garenean.

Janari bat?

Iburretako pintxo bat asteburu eguerdian.

Ura ala...

Ur zalea naiz, baina ardoa ere asko gustatzen zait.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ARETO
NAGUSIAN

*Etorri aurretik
izena eman!*

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MAIATZAK 7 larunbata, 10:30

MAIATZAK 19 osteguna, 17:30 *unibertsitate masterrak*

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI MAIATZAK 21 larunbata, 11:00

IRUN MAIATZAK 28 larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA MAIATZAK 14 larunbata, 11:00



902 110 436

www.mondragon.edu/prest



construcciones
mendiola

Labeaga, 7 URRETXU
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Etxebizitzen
Eraikuntza

Industria
Pabilioiak

Urbanizazio
Lanak

